Federación de AMPAs de Álava
**DENON ESKOLA**
Arabako Guraso Elkarteen Federazioa

info@denoneskola.org
Tel. 945 25 61 62 - Fax 945 25 76 80
C/ Florida nº 62 A - 01005 VITORIA-GASTEIZ

zerbitzua euskaraz

Kaixo familiak:

Ia urtebete joan da Guraso Elkarteetatik eskola inklusibo, ekitatibo, laiko eta kulturartekoaren aldeko ibilbideari ekin gionetik. Hiriko eskoletako segregazioa eta hainbat ikastetxe publikotan gorantz doan getizazioa ikusirik egoera salatzera eta neurriak hartzeko eskaera egitera atera ginen.

Iazko ikasturtea oso intentsua izan zen: prentsaurrekoak, elkarrizketak komunikabideetan, iritzi artikuluak, bilerak erakunde eta alderdi politikoekin. Azkenik aho batez onartu zen eskola integratzaile baten eta hiri hezitzaile baten aldeko mozioa lortu genuen.

Mozio hartan gure hiriko zenbait ikastetxe publikotan atzerriko jatorria duen ikasleriaren segregazioaren aurreko instituzio mailako gaitzespena baino gehiago adierazten zen. Vitoria-Gasteizko udalari eskola segregazioak eragiten dituen arazoak aztertu eta egoeraren analisia eta egutegi batean jasotako neurri zehatzak jasoko zuen kudeaketa plana burutuko zuen erakunde-arteko mahai bat antolatzea eskatu genion. Horrez gain, ikastetxeetako Guraso Elkarteen lana aitortzea eta laguntzea, eta ikastetxe publikoetako eraikin eta instalazioen azterketa bat egitea- gaizki dauden kasuetan konpontzen has daitezen- eskatzen genuen.

Joan den ikasturtearen bukaeran, ekainean, Udal Gobernuak erakunde-arteko mahaiaren lehen deialdia egin zuen eta bertan parte hartu genuen hiriko hezkuntza publiko zein itunpekoaren eragile ezberdinekin loturiko ordezkariak. Haien artean Vitoria-Gasteizko Euskal Eskola Publikoaren aldeko manifestuaren Denon Eskolako Batzorde Dinamizatzailearen ordezkariak ere izan ginen.

Erakunde-arteko mahaiak bestelako autonomia erkidegoetan arrakastaz abiatutako esperientziak kontuan izanik bere ibilbidea egiten jarraitzen du kontsentsuzko proposamenak egitea ahalbidetuko duen diagnostiko bateratu baten bila. Esan ohi denez “jauregiko kontuak, astiro” eta mahai horren lana ere pixkanaka doa baina argi dago jadanik inork ez duela esango eskola segregaziorik ematen ez denik. Arazoari aurre egiteko borondate politikoaren falta da gure hiriaren etorkizuneko gizarte kohesioa arriskutan jartzen duena eskola mota bi sustatuz, pobreentzat eta beste guztientzat, nahiz eta diru publikoz finantzatu abiadura desberdina daramatenak.

Jakin badakigu gure borroka hau ez dela ezer izango kale mailako presioari eusten ez badiogu. Horregatik erakundeen ildo horrekin batera Guraso Elkarteak zein manifestua sinatu zuten erakundeak- besteren artean sindikatuak, Irakasle Eskola eta Sarean elkartutako ikastetxe publikoetako zuzendariak batzen dituen "Vitoria-Gasteizko Euskal Eskola Publikoaren aldeko Plataformaren" bilerak antolatu ditugu.

Plataforma hau aktibatu egin da, eta gure hiriaren hezkuntza egoeraren diagnostikoa konpartitzeko hainbat bilera egin ondoren, lanean hasi gara:

- Joan den urriaren 3an Hezkuntza Ordezkaritzaren egoitzaren aurrean premiazko kontzentrazio bat deitu behar izan genuen Arabako Berme Batzordearen lehen bilerarekin bat eginez. Kontzentrazio honekin eskola segregazioan aldaketarik ez egotea eta eskola publikoaren getizazioak gorantz egiten jarraitzea salatu nahi genuen, beste ikastetxe batzuetan, kasu gehienetan itunpekoak, errealitate honi bizkarra eman eta gizarte kohesioari erantzunik ematen ez dioten bitartean.
- Eta orain gure jarduera plana prestatzen ari gara gure mezua zabaltzen jarraitzeko: prentsaurrekoa, hemendik gutxira familien artean zabaltzeko jasoko duzuen triptikoa, prentsa artikuluak, Facebook-en orrialdea, …

Iritzi publikoa astintzen eta erakunde eta alderdi politikoak presionatzen jarraitzeko asmoa dugu ausartak izan daitezen eta neurriak har ditzaten atzerriko ikasleen pilaketa artifiziala saihesteko, gizarte aniztasunari erantzun ematen dioten ikastetxeei laguntza emateko eta gehiegizko kontzentrazioa daukaten ikastetxeetan atzera egiteko.

Gogorarazi nahi dizuegu plataforma honetan parte hartzea irekita dagoela uneoro eta pozez hartuko zaituztegu zuek eta zuen ekarpenak, apalak badira ere.

Eskerrik asko!

Vitoria-Gasteizko Euskal Eskola Publikoaren aldeko manifestuaren Denon Eskolako Batzorde Dinamizatzailea

Gogoratu: https://manifiestogasteiz.wordpress.com/

Federación de AMPAs de Álava
**DENON ESKOLA**
Arabako Guraso Elkarteen Federazioa
info@denoneskola.org
Tel. 945 25 61 62 - Fax 945 25 76 80
C/ Florida nº 62 A - 01005 VITORIA-GASTEIZ

Kaixo familias:

Ya ha pasado cerca de un año desde que las AMPAs de la escuela pública de Gasteiz empezamos nuestra andadura a favor de una escuela inclusiva, equitativa, laica e intercultural. Preocupadas por la segregación escolar de la ciudad y por la creciente guetización de muchas escuelas públicas salimos públicamente denunciando esta situación y reclamando que era hora de tomar cartas en el asunto.

El curso pasado fue muy intenso: ruedas de prensa, entrevistas en diferentes medios, artículos de opinión, reuniones institucionales y con partidos políticos. Finalmente, conseguimos la aprobación unánime de una moción a favor de una escuela integradora y por una ciudad educadora.

En aquella moción recogimos mucho más que una mera declaración institucional mostrando rechazo a la segregación del alumnado de origen extranjero en algunos centros públicos de nuestra ciudad. Pedíamos que el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz creara una mesa interinstitucional para abordar el problema que supone la segregación escolar, que realizase un plan de gestión en el que se recogiese un análisis de la situación, así como medidas concretas con un calendario detallado para ponerlas en marcha. Además, también demandábamos ayuda y reconocimiento para la labor de las AMPAs de estas escuelas, e instábamos al Gobierno municipal a hacer un análisis del estado de los edificios e instalaciones de los centros educativos públicos con el fin de comenzar a subsanar deficiencias.

A finales del curso pasado, en el mes de junio el Gobierno municipal convocó la primera reunión de la mesa interinstitucional en la que participan diferentes agentes relacionados con la educación pública y concertada de la ciudad, entre ellos representantes de la Comisión Dinamizadora del Manifiesto a favor de la Escuela Pública Vasca en Vitoria-Gasteiz de Denon Eskola.

La mesa interinstitucional sigue su andadura trabajando para alcanzar un diagnóstico común que permita consensuar propuestas con la vista puesta en experiencias exitosas desarrolladas en otras comunidades autónomas. Las cosas de palacio van despacio y el trabajo de esta mesa es lento, pero lo que está claro es que ya nadie puede negar que exista segregación escolar y que la falta de voluntad política para abordar este problema pone en riesgo la futura cohesión social en nuestra ciudad al favorecer dos tipos de escuelas, una para pobres y otra para el resto, que se sustentan con dinero público pero caminan a dos velocidades diferentes.

Federación de AMPAs de Álava
**DENON ESKOLA**
Arabako Guraso Elkarteen Federazioa
info@denoneskola.org
Tel. 945 25 61 62 - Fax 945 25 76 80
C/ Florida nº 62 A - 01005 VITORIA-GASTEIZ

Somos muy conscientes de que toda nuestra lucha puede terminar en papel mojado si no somos capaces de seguir ejerciendo presión en la calle. Por eso, junto con la vía institucional, hemos impulsado reuniones periódicas de la "Plataforma a favor de las Escuela Pública Vasca en Vitoria- Gasteiz", que agrupa, no sólo a las AMPAs, sino a todas las organizaciones que apoyaron nuestro manifiesto, como los sindicatos, la Escuela de Magisterio, y los directores de los centros públicos, agrupados en Sarean, entre otras.

Esta plataforma se ha activado y, tras varias reuniones en las que hemos tenido que volver a compartir el diagnóstico de la situación educativa de nuestra ciudad, ya nos hemos puesto a trabajar:

- El pasado 3 de octubre convocamos una concentración de urgencia en frente de la Delegación de Educación coincidiendo con la primera reunión de la Comisión de Garantías de Educación de Álava. Con esta concentración quisimos denunciar que nada había cambiado, que la segregación escolar y la guetización de la escuela pública sigue siendo ascendente mientras que otros centros, la mayoría concertados, dan la espalda a esta realidad y no dan respuesta a la cohesión social.
- Y ahora estamos elaborando un plan de actividades para seguir difundiendo nuestro mensaje: una rueda de prensa, un tríptico que os enviaremos en breve para que los difundáis entre las familias, artículos de prensa, una página de Facebook…

Nuestra intención es seguir agitando la opinión pública y seguir presionando a las instituciones y a los partidos políticos para que sean valientes y tomen medidas contra la concentración artificial de alumnado de origen extranjero, para apoyar a los centros que responden a la diversidad social, y para revertir procesos ya existentes de concentración excesiva.

Os recordamos que la participación en esta plataforma está siempre abierta, y que nos encantará contar con vuestra presencia y ayuda por pequeña que sea.

Eskerrik asko!

La Comisión Dinamizadora del Manifiesto a Favor de la Escuela Pública Vasca en Vitoria-Gasteiz de Denon Eskola

Recordad: https://manifiestogasteiz.wordpress.com/